



141. ALDIZKARIA - 2014ko uztailaren 21a

2. NAFARROAKO TOKI ADMINISTRAZIOA

2.2. XEDAPEN ETA IRAGARKIAK, HERRIEN ARABERA ANTOLATUAK

UHARTE

2014ko aurrekontua. Behin betiko onespena

Uharteko Udalak, 2014ko otsailaren 27an egin osoko bilkuran, hasiera batean onetsi zuen 2014ko aurrekontu orokor eta bakarra, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 272. artikuluan xedatuarekin bat. Hura entitatearenak berak, bere erakunde autonomoenek (Udalaren Musika eta Kirol patronatuak) eta "Sociedad Municipal de Gestión Urbanística Areacea, S.A." enpresaren diru-sarrera eta gastuen aurreikuspenak osaturik dago. Hasierako onespeneren erabakia 2014ko 51. Nafarroako Aldizkari Ofizialean eman zen argitara, martxoaren 14an. Jendaurreko epea igaro eta inork alegaziorik aurkeztu ez duenez gero, bidezko da Udalaren 2014ko aurrekontua behin betiko onestea.

1. Uharteko Udalaren 2014ko ekitaldiko aurrekontua onestea, espedientean behar bezala eginbidetuta jasota dagoen testuaren arabera. Diru-sarrerak eta gastuak berdinduta daude eta 5.226.073,25 euro egiten dute.

2. Aurrekontua betearazteko oinarriak onestea, espedientean behar bezala eginbidetuta jasota dagoen testuaren arabera.

3. Udalaren Musika Patronatuaren 2014ko aurrekontua onestea; diru-sarrerak eta gastuak berdinduta daude eta 257.210,00 euro egiten dute.

4. Udalaren Kirol Patronatuaren 2014ko aurrekontua onestea; diru-sarrerak eta gastuak berdinduta daude eta 1.034.576,00 euro egiten dute.

5. Uharteko Udalaren 2013ko aurrekontu finkatua onestea; diru-sarrerak eta gastuak berdinduta daude eta 6.087.731,25 euro egiten dute. Hona hemen kapituluka zehaztuta:

DIRU-SARRERAK:					
KAP.	DESKRIBAPENA	UHARTEKO UDALA	MUSIKA PATRONATUA	KIROL PATRONATUA	AURREKONTU BATERATUA
1	Zuzeneko zergak	2.406.000,00			2.406.000,00
2	Zeharkako zergak	100.000,00			100.000,00
3	Tasak, prezio publikoak eta bertzelako diru-sarrerak	482.300,00	96.200,00	730.752,00	1.309.252,00
4	Transferentzia arruntak	1.666.466,25	161.000,00	300.824,00	1.698.162,25

5	Ondareko diru-sarrerak eta herrilurretako aprobezamenak	171.307,00.	10,00	3.000,00	174.317,00
6	Inbertsioak besterentzea	0,00			0,00
7	Kapital transferentziak eta kapital gastuak finantzatzen dituzten bestelako diru-sarrerak	0,00.			0,00
8	Finantza-aktiboak	400.000,00			400.000,00
9	Finantza-pasiboak				0,00
GUZTIRA		5.226.073,25	257.210,00	1.034.576,00	6.087.731,25

GASTUAK:

KAP.	DESKRIBAPENA	UHARTEKO UDALA	MUSIKA PATRONATUA	KIROL PATRONATUA	AURREKONTU BATERATUA
1	Langileria gastuak	1.651.594,24	245.900,00	107.810,00	2.005.304,24
2	Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak	2.030.033,21	9.050,00	835.504,00	2.874.587,21
3	Finantza gastuak	600,00			600,00
4	Transferentzia arruntak	899.833,80	260,00	76.502,00	546.467,80
6	Inbertsio errealak	231.512,00	2.000,00	14.760,00	248.272,00
7	Kapital transferentziak				0,00
8	Finantza-aktiboak	412.500,00			412.500,00
9	Finantza-pasiboak				0,00
GUZTIRA		5.226.073,25	257.210,00	1.034.576,00	6.087.731,25

6. Areacea, S.A. Hirigintza Kudeaketako Udal Sozietatearen 2014. urteko aurrekontua onestea.

Uhartan, 2014ko uztailaren 3an.–Alkatea, Iñaki Crespo San José.